


# Noaua!!

HAMABOSKARIA

2002ko urtarrilaren 25a VII.urtea

Usurbil, 126. zenbakia


# Isun zorrotzak jasotzen ditu araudi berriak

SETABU TAILERRAK, S.M.
ERREMENTARITZA-GALDARAGINTZA

x SOLDADURA
x BURDINEZKO ATEAK
x BURDIN SAREAK
x PLANOTIK EGINDAKO PIEZAK

Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe

Ugarte industrialdea, 7 Pabilioia
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)

URDAIRA
Sagardotegia

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Dagoeneko zabalik!




GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA
BAXU KOMERTZIALAK



KALE NAGUSIA 4,6,8 ERREKATXIKI KALEA 2,4,6,8

GARAGEN SALMENTA ETA ALOKAIRUA,
BAXU KOMERTZIALEN SALMENTA
SALMENTA ZUZENA ERAGILEAGATIK.
KALE NAGUSIAN 4,6,8 eta ERREKATXIKI KALEAN 2,4,6,8

GARAGE ITXIAK, KOMUNITATEN ADMINISTRATUAK.
KOTXE BATENTZAT EDO BIENTZAT · ALTUERA BEREZIAK
BAI FURGONETAK EDO KARABANARENTZAT. TAMAÑA ETA LUZERA
DESBERDINAK. EGUNERO ARGIAREKIN EDO KONTAGAILU
PROPIOAREKIN. KOTXEAK GARBITZEKO LEKUAREKIN

SALMENTAK ZURE NEURRIN FINANTZIATUAK
SARRERAK: 500.000 pezetatik, HILEKOAK: 15.000 pzt.

**MENDIGAIN S.M.** ERAGILE INMOBILIARIOA. Tel. 943 31 48 21
DEITU EZAZU KONPROMISURIK GABE

GARAGEN DISTRIBUZIOA



Egin zaitez Noaua!ko bazkide

Merkeago afaldu nahi baduzu, edo eta erosketak merkeago egin nahi badituzu hona hemen zure aukera

%10eko beherapena

Aldatz kiroldenda
Mahuka jantzidenda
Pauma Haur jantziak
Truke jantzidenda
Usurbil optika denda
Intza ileapaindegia

2.500 pezetatik gorako otordua eginez gero %10eko deskontua

Antxeta jatetxea
Patri jatetxea
Zumeta jatetxea

# Gazi Gozo Geza

## Txerrimunik ordainetan



Zorionak Enara Elizegi! Gure etxeko argi-hari, [illegible] 2 urte bete bat zituen. Musuak etxekoen partez.



Zorionak Amagoia! Urtarrilaren 27an Gazi eta Noaua'ko kideak [illegible] 27 urte egingo ditu; [illegible] egun ona pasa!



Zorionak Bixente! Etxekoek Bixente Mari [illegible] zorionak eta urte [illegible]!



Zorionak Imanol! [illegible] urtebetetze eguna izan zuen pasa den urtarrilaren 11an. [illegible]

Hona hemen edonor zoriontzeko tartea. Bere urtebetetze eguna delako, ezkondu egin direlako edota tituluren bat lortu duelako dohainik, bazkide direnek nahiz ez direnek tarte hau erabili dezakete. Ekarri beharrekoa, testua eta argazkia.

Hurrengo alea: otsailak 8

Ekartzeko azken eguna: otsailak 4

## Jaiotzak

**Aitor Villafafila Illarramendi**
2002-01-7
San Esteban

**Eider Goikoetxea Lizeaga**
2001-01-12
Zubiaurrenea

## Akatsak zuzenduz

Aurreko aldizkarian Elgetaren soinu txikia izan genuen hizpide. Ziaitzeta trikitilaria elkarrizketatu genuen eta orain aurrekoan aipatu ez genituen datu batzuk azaldu beharren gaude. Ziaitzetak argi utzi nahi du Damaso Lizasoren amari saldu ziola soinua eta 12.000 pezetaren truke. Ez dela egia 65.000 pezeta jaso zituela aipatu soinuarengatik.



### Udaltzaingoaren ordutegia

**Astegunetan**

6.00/22.00

**Asteburu eta jaiegunetan**

7.00/22.00

Gainontzeko orduak telefonoz.

Atea itxita aurkitzen baduzu deitu telefono honetara

943-361112



Kexaren bat baduzu, kritikaren bat eskuartean badabilkizu edo eta beste zerbaitetaz hitz egin nahi baduzu guk ikamikan toki bat egingo dizugu.

Eskutitzak izengoiti batekin sinatu daitezke, baina Noaua'n argitara emateko guk zuen izen-abizenak jakitea ezinbestekoa da. Testuak 2000 karaktere baino gutxiago izan beharko ditu.

Eskutitz horiek Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara eraman edo postaz bidali besterik ez duzue egin behar.

### Otsaila

| Astel. | Astear. | Asteaz. | Osteg. | Ostir. | Larun. | Igand. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | 1 | 2 | 3 |
| 4 | 5 | 6 | 7 | ● | 9 | 10 |
| 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 |
| 18 | 19 | 20 | 21 | ● | 23 | 24 |
| 25 | 26 | 27 | 28 | | | |

● Hurrengo alea

# Zer irizten?

Noaua!!

**Argitaratzailea**
Noaua! Kultur Elkartea
Bordatxoaren 3 Frgaskitzaldea
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tel.: 943 36 03 21 Fax.: 943 37 25 02
E-mail: noaua@euskalnet.net
Web orria:
http://www.jaigo.com/foaagunea/noaua

**Kazetarien koordinatzailea**
Imanol Ubeda

**Kazetariak**
Imanol Ubeda, Amagoia Mujika eta Agurtzane Solaberrieta

**Publizitatea**
Agurtzane Solaberrieta

**Zuzentzailea**
Eneko Etxeberria

**Kolaboratzaileak**
Iñaki Korrales, Xabi Olaizola, Iñaki Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Patxi Agudo, Alfontso Vidal, Aitziber Begiristain, Zaloa Arrizabalaga, Agurtzane Solaberrieta, Joseba Pellejero, Amaia Ulibe, Eider Irazusta, Mikel Iringoetxea, Agustin Esnaola, Oiatz Goenaga, Unai Manterola, Eneko Ibarguren, Karmelo Udarapileta, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Urdapilleta, Lukene Korrales, Aitor Muñoz, Oiatz De Miguel, Jone Etxeberria, Jokin Zubizar, Maria Jesus Ubeda, Iñaki Agirresarobe eta Mari Angeles Arruti

**Ilazkidetza**
Aitziber Aramburu

**Erredakzio Kontseilua:**
Imanol Ubeda, Amagoia Mujika, Gorka Urbieta, Zaloa Arrizabalaga eta Agurtzane Solaberrieta

**Informatika**
Pili Urdapilleta eta Oskar Angulo

**Banaketa**
Miren Arizmendi, Txelo Vidal eta Karmen Etxekonde

**Elektrikaria**
Iñaki Sarasamendi

**Tirada:** 2.400 ale

**Lege-Gordailua:** SS-660-96

**ISSN:** 1134-6418

**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako iritzien eta irizten erantzukizunik.

**Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-20.00 astegunetan**

**AZALA**

**Abiadura markagailua, autoan behin eta berriz begiratu beharko duguna**



## Gripea iritsi da

### Usurbilgo Anbulategiko erizainak

Neguarekin batera urtero bisitatzen gaituen "gripea" etorri da, baina bisita jakina izateak abantailatxoak eskaintzen ditu, alegia, prestatzeko aukera ematen du eta horixe da guk Osasun Zentroan aldez aurretik egiten dugun lana, prebentzioa.

Irailean hasten gara txertaketa kanpainarako prestaketekin: eskualdeko kanpaina arduradunarekin bilerak, Zentroko bilera, 65 urtetik gorakoei eskutitzak bidali, gaixo kronikoei aholkuak eman, etxeetan dauden ezinduen zerrendak osatu eta abar. Ondoren txertaketa bera, bi hilabete inguru.

Guretzako etapa hori da garrantzitsuena: txertaketak ekiditen dituelako arrisku gehien duten pertsonen arazoak (65 urtetik gorakoenak eta gaixo kronikoenak...).

Aurtengo kanpainako datuak honako hauek dira:

- 65 urtetik gorako txertatuak, 500 lagun.

- Gaixo kroniko (diabetes, bronkitisa...) txertatuak, 121 lagun.

Beraz, pentsa dezakegu herritarrak prestatuta daudela gripeari aurre egiteko, hau da, ez gaitu ustekabean harrapatzen.

Naiz eta prebentzio lanetan jardun, urtero gertatu ohi den bezala, kasu batzuk agertzen dira honako sintomekin: buruko mina; sukarra altua (bi edo hiru egun), eta gorputz osoko mina.

Pertsona osasuntsuetan, egoera horri aurre egiteko garaian, ez dago berririk: gorputzak behar duen atsedena eman, sukarra jaisteko botikaren bat hartu eta ondo hidratatzen saiatu, zumoak, ura, salda eta abar hartuz.

Hori bai, sintomak ezberdinak edo esandakoak luzatuz gero, medikuari kontsulta egitea komeni da.

Usurbilgo Udala

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal prentsa... Euskal Herria!

Markesaneko petriletik

# Herriko merkataritza euskalduntzen

**Badira hilabete batzuk udalak herriko merkataritza eta ostalaritza establezimenduak euskalduntzeko egitasmoa abian jarri zuela. Euskararen normalizazio bidean merkataritzak duen garrantziaz jabetuta kanpaina hau bultzatzea erabaki zuen, eta lan horretan AEK eta Noaua Kultur Elkarteak bat egin dute.**

*"Zenbat da? Euskarak eztu preziyoik"* leloarekin jarri zen martxan 1998an Herriko Merkataritza euskalduntzeko interbentzio plana. Kanpainak emaitza oso baikorrak utzi zizkigun orduan. Baina, euskararen normalizazio bidean bada oraindik eginbeharrik eta beraz, lehen kanpaina haren bigarren aldiari ekin zitzaion iazko irailean, *"Herriko komertzioetan, eros ezazu euskaraz!"* leloarekin.

Segidan, kanpaina honen tresna nagusia izan den hitzarmena aurkeztu zen saltokiz saltoki. Hitzarmen hauen bidez, merkatari bakoitzak euskararekiko konpromiso ezberdinak hartu ditu, idazkiak eta menuak euskaratu, errotulua aldatu eta abar.

Herrian 107 saltoki ditugu eta merkataritza euskalduntzeko garaian urratsak emateko proposamena guztiei egin zaie, nahiz eta oraindik zortzi saltokirekin zuzeneko harremana izatea lortu ez (hurrengo egunetarako lana).

Oraingoz, 79 saltoki dira euskararekiko konpromisoa hartzera animatu direnak eta 20, udalak eskainitako materiala (ordutegi taxtela eta merkatal arloko hiztegitxoa) jaso nahi dutenak.

Euskara sustatzeko garaian batez ere landu ditugun merkataritza arloko elementuak hiru izan dira.

Lehena, **agerian dituzten idazkiak euskaraz** jartzearena da. Atal honetan, errotulo, inprimaki (faktura, erreziboa, bieke eta abar), ordutegi, idazki propio eta menuak sartzen ditugu eta hauek euskaratzera animatu direnak, **22 saltoki** izan dira.

Bigarren atalean merkatariak **euskalduntzeko edota alfabetatzeko ikastaroak** sartu ditugu. Aurreko aldian bezala, merkatari asko animatu da ikastaroetara, **20** inguru. Merkatari gehienak euskaldunak izan arren, hainbatek euskaraz trebatzeko premia ikusi dute.

Hitzarmenaren 3.atalean **udal, finantza erakunde eta besteetatik merkatariek jasotzen dituzten idazkiak euskaraz jaso nahi** al dituzten galdetu diegu. Idazkiak bada euskaraz jasotzeko prestutasuna agertu dutenak asko izan dira, **51 saltoki** guztira.

Hitzarmenak sinatu dira eta orain, hitzarmen horietan bakoitzak hartutako konpromisoen gauzatzean ekingo diegu. Udalak prest du jada bere zuzenketa eta itzulpen zerbitzua, eta, bestalde, euskarazko ikastaroak ere laster antolatuko ditugu. Horrela bada, kanpainak emaitza onak ekarri ditu, merkatari asko izan dira kanpainarekin bat egin dutenak. Beraz, dendan, tabernan, jatetxean... guztiei dagokigulako eta preziyoik eztuelako, herriko komertzioetan eros ezazu euskaraz.

**Nerea Erauntzetamurgil**










BORDATXO
EDARITEGIA
PINTXO BEREZIAK
Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

# SANTUENEA



Agustin Esnaola

## Hausnarketa

Buruan dabilkiten ideia ez da berria izango, baina bai beharrezkoa auzoetan bizi garenontzat eta herritarrei aurkeztea pentsatu dut.

Kaleberritik at dauden auzoak ez dira udaletxeko eguneroko martxan presente egoten. Honek ez du esan nahi, ordea, zinegotziak ahaztuta daudenik. Ez, baina, beste pausu bat eman beharra ikusten dut. Auzoetan auzoko komisioa izan dezaken taldea osatu daiteke. Auzotarren eta auzoaren beharraz hitz egiteko eta udaletxera proposamenak eramateko.

Auzoko komisio honen eginkizuna ez litzateke politikoa izan behar, han tirabirak sor daitezkeelako, baizik eta auzoaren hobekuntzak nondik nora jo beharko lukeen erabaki beharko luke.

Komisio honetako partaideak auzotarrek aukeratuak izan beharko lukete. Aukeraketa nominalki, eta ez alderdi bateko ordezkari gisara, udaletxeetan egiten den bezala. Bozkatzeko eskubidea duen edonor aukeratua izan zezakeen. Auzoko hauteskunde txiki batzuk antolatu beharko lituzke udaletxeak.

Era honetara, auzotarren intzia eta hitza gehiago entzungo litzake udalean. Zailtasunak egongo lirateke, auzotarren artean adostasun batetara iristea ez litzatekeelako erreza izango. Baina mereziko luken ahalegina izango litzake.

Erabaki guztiak bezala, bere alderdi onak eta txarrak ikusten zaizkio: onak, auzotarren hitza entzun eta hobekuntza nabarmenak ikusiko liratekeelako. Txarrak, alderdi politikoak indarra galduko lukeelako auzoetan eta udal gobernuan dauden zinegotziak buru hauste handiagoak izango lituzketeelako.

Hau izan da nire hausnarketa. Norbaitek beste zerbait erantsi nahiko balu, Noaua!ra idatzi besterik ez du.

# URDAIAGA



Eider Jauregi

## Pinudia

Jada hilabete pasa da gure inguruko pinudiak atera zituztenetik eta bata bide bazterrak ikaragarrizko zulo beltza isladatzen digutenetik. Nahiz eta udalak bere esku duen bide inguru hori nolabaiteko konponbidea ematea ezbeharrik gerta ez dadin nire ustez lan benetan zaila daukate.

Batetik, bidea bera zati batzuetan guztiz pitzatua dagoelako eta edozein euste handirekin goitik behera erortzeko arriskua duelako eta bestalde autoan bagoaz beste autoren batekin topo eginez gero a zer nolako sustoa.

Lehen nolabait gehiago hurbiltzen ginen bide bazterrera baina oran ez dago edonola bide bazterrera inguratzerik badirudi beheko pretara erori behar dugula. Ni dagoeneko ohitu naiz egoera honetara baina ez pentsa; sustu pare bat izan ditut mendira igotzen diren motazale horietako batzuekin baina dena sustoan geratu da zorionez.



Gainera pinuak atera dituzten gune horretan herriko errotondan dagoen harri borobilaren tankerako besteren bat agertu da bertan. Jakingo nuke gustura inork baleki harri hauen nondik norakoa, beraz inork harri buruzko berririk balu esan besterik ez du.

# KALEZAR

Andoni Udabe



## Kalexar: Noeren auzoa

Oraingoan, Kalexarri dagokion tarte hau betetzeko gure auzotik bueltatxo bat ematea otu zait eta arreta deitu didan kontu bat kontatu nahi nuke: animaliak.

Esaerak dioen bezala, otsaila katu hila omen da eta ikusi dudanaren arabera egia dela esan dezaket. Otsailean sartzeko gutxi geratzen den garai honetan urte hasieran baino katu gehiago dago gure auzoan eta asko dira tripa handia duten katuemeak. Hauek laster katakumeak ekarriko dituzte.

Hala ere, ez dira hauek auzoan dauzkagun animalia bakarrak: bakarrak, ardiak, ahariak, ahuntzak, akerrak, konejuak, oilaak, oilarrak, oilaskoak, ahateak, idiak, behiak, txekorrak eta txahalak ere ugariak dira. Aldiro hemendik udaberria bitartean arkume politxoak ekarriko dituzte, jada batzuk ikus daitezke larreetan jostatzen. Guzti hau dela eta, gure postre goxoenetako bat dastatzeko garai ezinhobea da, mamia alegia.

Aipatutako animalia hauek auzoko baserri askotan aurki daitezke. Hala eta guztiz ere, beste animalia batzuk aipatu nahi ditut, baserrietan hain ohikoak ez direnak eta kronika hau idaztera bultzatu nautenak. Hauen artean oreinak azpimarratu behar, adar oker bihurriko animalia arin honek.

Bestalde, basurdeak, inguruetan aski ezagunak izan arren (Usurbilgo lehengo normamaren ikur) baserrietan ez dira hain arruntak. Azeriak ere etortzen dira tarteka gure lekura bat egitera. Eta nola ez, astoa. Tamalez, gaur egun astoak bizi duen egoera kezkagarria da eta gero eta urriago aurkitzen dira gure baserrietan. Animalia beltzan handi "sinpatiko" honek egun zailak bizi ditu.

Zerrenda luze hau txitu, kuartza, izokin, ahate, ontza eta beste hegazti mordo batez osatzen da.

Asko eta asko dira bidean galdu zaizkidan animaliak, baina ezagunenak izendatu ditut. Barka diezadatela beste guztiek! Ez nuen pentsatuko Kalexarko fauna hain ugaria zenik! (eta horri bi hankakoak aldi batera utzi ditugula!).

# ATXEGALDE

Amagoia Mujika



## Oiartzun txuri-urdina

Joan den urtarrilaren 18ko bazkalosteak doinu berezia izan zuen gure inguru hauetan. Raimundo Sarriegik agindutako melodiek behin eta berriz ekarri ziguten gogora Sebastian bat badela hor goialdean eta Donostia bakarra omen dela munduan. Gure txikiak ohiko mantala bazterrean utzi eta dotore agertu ziren gurasoekin, aiton-amonekin, osaba-izebekin... zuten hitzordura. Eta munduan bakarra omen deneko horrek hemen ere arrasto handi samarra duenaz ohartu nintzen berriz ere. Kasik ezinezko bihurtu da etxebizitza modu duinean eskuratzea Hiriburuko "periferia" edo deitako horretan bizitzeak dakarren kondena. Eta lehendik ere Easo Ederraren eragina nahikoa present eduki ez eta, tori, danborrada dosi itzela, sobredosiak jotzeko moduan.

Gelako paretari begira, hortxe agertzen gara Aitzi eta biok zazpi bat urte genituenean. Batak txapela txuri-urdina eskas samar eta besteak nahiko lan sukaldari burukoa belarriekin eusten. Danborra, ostera, kategorikoa. Amak labadoraroko erabiltzen duen jaboiaren kaxa dotore margotu, saka pare bat lotu eta aurrera, poz pozik. Sarriegiren doinuak entzuteak sortu dizkidan petralkeriak ahaztu eta txikitako kontuez gogoratzeak sortzen duen irri txikia ahopean hartuta abiatu naiz lanera.

Eta kotxeko hausnarketa sakon horietako baten artean, Donostiaren arrastoa, danborrada kontuetan, hain txarra ere ez dela konturatu naiz. Lekutan geldituen dira Donostiako haurren militar traje dotore horiek eta danbor eta makil perfektuak gure jaboi kaxa margotuen ondoan. Eta txikitan ez dakit zenbat koloretako luma "astrakalariodun" kapelak gure txapel zirtrin baino maitagarri haren alboan. Donostiako gurasoen pareko da, berriz, hemengoen irri epela bere txikiek danborra nola astintzen duten begira-begira.

# TXOKOALDE

Eukene Camino



## Berri txarrak

Hori da zortea Oria ibaia garbi ezagutu zutenena! Angulak, aingirak, zarboak, izkirak, amuarrainak, izokinak, loinak, txabaluak... guzti hauek arrantzatu eta jan ahal izan zutenak, zer ote diote orain gaur kutsatuen errez arrainak hibaitik desagertzen ari direla ikusita?

Hilaren 13an, igandea, Patxi, arrantza kontuetan oso zaletua eta dituan den auzotar gaztea, lasartear batek Iratxeko erriberan izokin bat hilda aurkitu zuela esanaz etorri zitzaidan. Ibai ertzean, harri tartean topatu omen zuen 3'200 kilo eta 75 zentimetro dituen argazkiko pieza eder hau. Patxiren esanetan gertaera tamalgarri hau uraren egoera txarrari dagokio, beraz, gauzak ez badira aldatzen laster korkoinak ete ez ditugu ikusiko gure Oria ibai hontan!

Animalia kontuetan jarraituz, hemen beste berri txar bat. Orain dela aste gutxi "Etxe-Alai"-koek (auzoan "Mari Kruz Enea" bezala ezagutzen duguna) hiru ardiren falta sumaturik, inguruan, bertan topatu omen zituzten



hilda. Txakurren baten baten bat izango zen sarraski hau noski!

Beno, Noaua! zaleok, urte berri on bat izan dezazutela guztiok eta ea hurrengoan berri hobeak ditudan zuei kontatzeko.

# KALEBERRI

Eneko Harreguy



## Biziraun

Atzetik zuen tropel osa bat jarraika, ihesean zebilen zaldun "bakartiak". Mendiz mendi, probintziz probintzi, egunak joan, egunak etorri... jan eta lo, ahal eran egiten zituen. Jarraitzaileek hobeto hornituri babestu nahi zituzten euren buruak.

Ezin esan zalduna ez zenik gai bere burua gobernatzeko; baina, ostera, bere zaldiak oinetakoen lokarriu galdu zuenean -perrak itzea, alegia- baliabideak falta zitzaizkion. Ez zeukan, ostera, "txikikeria" horri jaramon handirik egiterik, bidea galduko zuen besteela-ko eta: "Aurrera egin behar, hortaz".

Egunak eman zituen oinetakoa ondo toturik gabeko bidailagunak lasterka. Gaur zelaietatik, bihar harroketatik ihesi. Perrak eskapo egin zion arte. Ez zuen atzera itzulirik; "Aukerarik ezean, aurrera".

Eta beste zenbait gau bakarti pasatu ziren; eta laštenera ez zuen zaldiak ondo laster egiten. Bi bider pentsatzen zuen pausua non pausatu. Zelaian goxo antzera egin zezakeen aurrera eta atzera. Aldiz, ez aurrera eta ez atzera harroka zetzan tokian. Begi bistakoa zen osasunez ez zihoala. Osatzeko nahiak eta eginahalak ezerezean gelditu ziren. Eria osoki barrendu zitzaion.

Zaldia zendu zitzaion, ezpatak bihotza bi zatitan erdibitu balion sentitzen zen zaldizkoari. Zaldirik gabe, ihesik gabe, bihotz erdi bat bere bizitzarekin eramango zuena; eta beste erdi bat, biziraungo zioten presoekin eramango zuena.



# AGINAGA

Iratxe Begiristain



## Agur esan aurretik

Oraingoan agur esatera natorkizue, Noaua!-ren sorreratik seguraski kronikak idazten natorrela, bada garaia besteren bati aukera emateko, ezta? (badakizue aukera duela nahi duenak).

Badut beste kontutxik ere, agur esan aurretik. Urteak dira espaloiak egin zirela; eta egia esan, urte gutxira hasi ziren zuloak sortzen... egoera kaxkarrean izan ditugu. Baina argazkian ikus daitekeen bezala, leku batzuetan zulo handiegiak daude, ibiltzeko arazoak edo jende helduа bertatik igaro dadin. Kontuz beraz eta lurrera begira ibili! (ea laster konpontzea lortzen den!)



Beste aldetik, Elutx kalean dagoen zabor kontainerraren egoera ikusirik (goraino beteta eta lurrean poltsak utzi beharrez) Udalari soluzio bide bat eskatu andiotan, lurpekoak jartzekoak direla erantzun du. Hala eta guztiz ere, kontainerra hutsik egonda ere poltsak lurrean uztearena? Bada bai, horrelakorik egiten duenik ere!

Agur !!

# ZUBIETA

Xabier Arregi



## Hipodromoa

Datorren urtarrilaren 27an urteroko korrika apustua izango dugu hipodromoan. 1956tik datorren usadioa da, aurten 47. aldiz egitekoa dena.

Garai batean festa haundia zen. Jende asko etortzen zen oinez Zubietara: plazara etorri, bazterren batean hamaiketakoa legea egin, eta Berridi gaihera edo hipodromora korrika apustua ikustera joaten ginen. Horixe izaten zen jende askoren eguarte-pasa. Plan polita.

Gaur, ordea, bakanak dira plan horri eusten diotenak.

Hipodromoko kontuak landu ditu Javier Sadak bere "Lasterketarako Guna. Donostiako Hipodromoaren 85 urteak" liburuan.

Argazkiz ondo asatuta dator liburua, eta historiako pasadizo interesgarriak ere badakartzki: nola 1916ko uztailaren 2an inauguratu zen (Santiabel egunean!), nola hasieretako urteetan eta gerra zibilak iraun bitartean aerodromoa ere izan zen, nola Espainiako errege Alfontso XIII.a sariak banatzera etortzen zen...

Baina, zoritxarrez, gaztelania hutsez kaleratu dute. Lotsarik ez!

Zaldi-karrerak antolatzeko ematen den laguntza publikoa hizpide hartuta, Donostiako udaleko Batasuna taldeak prentsa-ohar bat kaleratu zuen aurrekoan. Donostiako Batasunaren iritziz, ematen duten zerbitzurako gehiegizko laguntza jasotzen dute zaldi-karrerek: 1998an 20 milioi pezetako laguntza jaso zuten Donostiako udaletik, eta 2001ean ia 100 milioi pezetakoa. Igoera nabarmena da esa. Aldi honetan Maria San Gil-ek hartu du hipodromoko jardueraren ardura.



ika-mika

# Aurrez esandakoa... eta kitto!!!

Ez denbora luzean, hona hemen batak eta besteak egin dizkidaten adierazpenak:

Aurreko egun batean anbulatoriora joan, eta bertan herriko zinegotzi bat bere andrearekin jo eta zu "erdara batuan" -español- zamatu nian, eta nik ondotik dalet biak euskaraz baddikitena halare, beren semeari euskaraz egiten zioten.

Gaur udaletxera joan nauk eta bertako "langile-nagus" horietako bat emeto-bizian ari zuan beste langile soil bati, ezin zalapartago, sekulakoak esaten; bere onetik zeharo aterata ari zuan; baina "EN CASTELLANO CALIENTE", bizibizi, kopazanak handituik, odolbero eta zakapuzu eginik, gotik beherainoko haserrea zeiela.

Gaur udaletxera joan, eta bertako langile batzuk elgen artako bazku-mutxuan "kastilanoz" ari ziren erreparatu diat.( Ez dut oraingo hauen izenik, baina bai esan ardura haundiko karguduak direla horrela aritutakoak, ogertutako erreferentziatan aintzakotz). Zer egin egunero bizi ohi ditugun ekintzon artean? Nola eta zer adierazi pertsona jakin hauei betikoen, aurrez bastetan ahartatzaitako berberak ohartarazteko? Aizu, irakurle, ez da dilema erreza nik neuk behintzat baia jotzen dut, eta eginahalak eginagatik ez diktzait gauza samurrik zaila egiten zait egiatan, bene-benetan.

honetarako sendabelarrik ourkitzerik, jakin, badakit, adierazpen xeztkagatik ezinagook udaletxean hainbat zinegotzi eta enplegu administraritan egunerroko ogia dena: Ez da gaur goizeko kontua, aspaldikoa baizik; baina oraindik bitarteko abertimenduak alperalperrikakoak, nonbait! Zer egin, ordea?

Zerbait egitearren, eta errefexio gisara, Txillardegi idazle ospetsua, etorri zait burura: honekiko guztiekin ari baitu idatzia eta esana eta beraren adierazpenak agertuko ditut, behingoz ierde hau tehak harrapatuko duen esperantzan; hona, bada, segidan, gure euskaltzale sutsu-argiak esandakoak eta idatzitakoak:

"Bere burua euskalduntzat daukanak gauza bat egin behar du dutenik, aurren-aurrenik, bai, eta ez bigarrenik edo hirugarrenik: euskaraz jabetu, euskaraz hitz egin; eta erdara bere ondotik uzatzeko eran jantzi. Ez dago, ez da egia, premia handiagorik duen eginkizunik"(Txillardegik, "Euskal herritik erdal herriotara" liburuan, 197 or.).

"Euskararen egokera hain txarra izanda, ezin dugu hanhketan edo urduri hartu bere bizian dagokion sendabidea. Euskararen bila zinez nahi ez duena, ez da benetako euskaltzalea." (Txillardegik "Euskal herritik erdal herrietara" liburuan, 166 or.)

"Gure herriaren zoribarrez eta eskubidez hitz egiten hasi ahal izateko, lehen puntua erderaren zabalkundea geure buruan eta geure inguruan arras geldi-araztea. Hau gabe, tarso hutsa da gainerakoa." (Txillardegik "Euskal herritik erdal herrietara" liburuan, 198 or.)

"Euskararen beharrak baino aurreago jartzea gure griñak, ezin onartzat eman." (Txillardegik "Euskal herritik erdal herrietara" liburuan, 261 or.)

Honaino, bada, gure urrezko idazlumadun maisuak, euskararekiko ezinago sutsuak, sasieuskaltzale eta sasiabertzaleei zuzendutako sententzia zorrotzak; baina Txillardegi ez da bakarra modu honetara hitz egindakoa. Mordoa da honetara mintzo izana, ze demontre!: bai bere aurrekoak, bai bere sasoikoak, bai oraingoak, azken-azken azkenekoa aipatzekotan, zer esan zigun, bada, Unai Iturriaga bertsolari sakonak finaleko bere azkeneko agur bertsoan? Hor ez dago bueltarik: euskararekiko fideltasuna edo mintzamena eskatu zigun, garbiki. Zer egin, hortaz, sasieuskaltzaleekin? Behingoz argi eta garbi hauxe esan behar diegu: EUSKARAREKIKO ZINTZOTASUNIK EZ DUTENEZ GERO, EZ DUTELA HERRIAREN AITZINDARI EZ AGINTARI EDO ZUZENTZAILE IZATEKO ESKUBIDERIK. ETA KITTO!!!

**Jabier Pikabea Aizpurua**

# "Senideak" "Etxerat!" bihurtu da

Joan den abenduaren San 'Etxerat!' izena hartu zuen Hego Euskal Herrian 'Senideak' eta Ipar Euskal Herrian 'Gureak' izenpean bere senitarteko errepresaliatuen eskubideen alde dihárduten bi elkarteak.

Hilabete batzuk zeramatzen jada elkarrekin funtzionatzen, zehazki iazko abuztuko 25ean burututako batzarrean elkarte nazionala egitea erabaki zutenez geroztik. "Euskal Herri osoan daude errepresaliatuak eta beraz, Euskal Herri osoan daude senideak. Gure senitartekook preso edo iheslari izan, pairatzen duten eskubide urraketa borrokatzeko egokiago deritzogu era bateratuan lan egiteari" diote Usurbilgo 'Etxerat' elkarteko kideak.

Bide batez, preso usurbildarren helbideak gogorarazten dute herritarrek idatzi nahi izanez gero.

**✗ Xabier Aranburu Muguruza**
**C.P. Herrera de la Mancha - Mód. 2**

**Apartado 77**

**13200 MANZANARES (Ciudad Real)**

**✗ Ramon Uribe Navarro**

**Prisión Provincial - Mód. 2**

**Nanclares de Oca s/n**

**01123 LANGRAITZ**

**✗ Segurola Mayoz, Patxi**

**n/ 271772 - Bloc B- 331**

**Maison d'Arrêt de La Santé**

**42, rue de la Santé**

**75674 PARIS Cedex 14**

# Ika-mika

## Beste gutun ireki bat betikoari

Trafiko-alde handien ondo-riozko istripuetan hiltzen diren pertsonak eta doumi-nez triskaturiko familiak.

Gizonek ihaurita, hilik, ezindu edo biki-biki eginik geratzen diren emakumeak eta seme-ala-bak.

Munduko poluzioaren eragile handiena izaki, kontaminanteen emisioak murrizteari Estatu Batuek uko egin izana eta, ondorioz, hiltzen diren milaka gizaki eta animaliak.

Herrialderik aberatsen eta tek-nologikoki aurreratuenen onirtzi-aekin Afganistan, Kongo edo beste zeinahi herritako gizaki, ani-malia eta ondasunak bonbarde-atu eta txikitzea.

Pekatiatatea, gehiago irabazi nahia eta gizakientzako axolarik ezagatik, lan-istripuetan maizegi hiltzen diren langile ugariak, kas-keta handirik gabekoak beti.

Era guztietako drogen (kokaina, speed, alkohola...) eraginez gizar-te osoa kezkaturik eta aurrera egin ezinik egotea, arazo sozial latzak dituelako.

Auskalo zeinen mesedetan (aurki ikusiko dugu, seguru aski, Amerikatako haragia auzoko dendan), behi eroak, sukar afto-soak eta aspaldiko parioz susper-tzen ari diren gaitz "berrien" ondo-rioz beldurtu eta hiltzako gizaki eta ganaduak; hirugarren mun-dutik miseria gorriak bidalitako gizakiak, lehen mundu honetan lan-beltzean, prostituzioan, eskla-bismoan dabiltzan gizon-emaku-me dokumentu gabekoak; nagusi zibilizatuek nahi moduan, nahi izan arte esplotatuak; euskal pre-soak, familiartekoek eta lagunek sufritzen duten egoera, dispe-tsioa, bapeoak, astinketak, gau-zen bikizio eta lapurretak, kartze-letako garbitasun eta higienea-ren egoera onirikoa.

Etsaiaren epaile-borreroen aginduz euskal "tejoa" duen guz-tia (erakundeak, materiala, jen-dea...) itxitu eta kartzeleratzea.

Ia komunikabide guztiak gau eta egun iritzi publikoa pozoitzen aritzea, abertzaleak kriminaliza-tzea, argudiorik gabe ga konde-natzea...

Horiek guztiek ez dute inongo interesik, nonbait. Betikoak betiko karta errepikatzen du, Estatu fran-tses eta espainoleko Gobernu, Armada, Banka, Eliza eta Poliziak alde dituela jakinik, guri argudio-ak erabiltzeak ekarriko lizukeen zigorraz jabetuta. Ez dakit gaizta-keriaz eta ergelkeriaz ari den beti-ko hori baina, orain artekoak kusi-ik, ez omen da harrigarria horre-lakoek bote gehiago ez lortzea.

Indar errepresibo guztiak alde izanik ere, ez ahaztu, Paterikoa: hi.

**Edorta Agirre**

## EAJ-PNV erantzuten

1.- Andoni Atxega eta Julian Beraetxe EAJ-PNVko bi udal ordezkariak dira, beraz Batasunakoak jakin deza-ten, hauen eluntzak Usurbilgo EAJ-PNVren izenean eginak dira eta gure babes osoa dute.

2.- 2001 uztailaren 30eko osoko bilkurako akta, azaroko osoko bilkura baino 48 ordu lehenago eskuratu genuen beste zinegotzi guztiekin batera (berau inprimitu ondoren). Udalatxeko zinegotzi liberatuak eta teknikoak ez dira irakurtzeko gai izan (nahiz eta hemen hauen soldatak dozena-ka miloi pezeta ordaintzea supo-satu). Irakurri gabeko akta onar-tu eta besteei leporatu errua!

3.- Udal idazkariak akta horre-tan Jose Antonio Altunaren inter-bentzioa jaso behar zuen ( honek eztabaidan parte hartu baitzuen), baina ez dakigu zer-gatik hau ez da aktan azaltzen.

4.- Orandaino sartutako erre-kurtsoei erantzun gabe jarraitzen duzue, eta horren uidui jarri za-tuztelen azken errekurtso honen asmoa, hain legal egindako Eus-kera-Kultura teknikariaren aukera prosezuaren aurka jartzekoa izan da, ez besterik. Aukeraketa hori zuzena eta gardena izatea nahi genuen, ez zenezaten seguraski behatzez aukeratutakoren bat jarri.

5.- Zergatik azaltzen zarete horren uidui ilegalki (arauz kanpo egin baitzen deialdia) egindako abenduaren 28ko ple-noan, uztailaren 30eko akta hori aldatu baduzue jada? Pleno horretan gure galdera eta ale-gazioei ez zenieten erantzun, berriro aplikatu zenigutelarik ohi-tura duzuen bezala gobernu nagusiaren "RODILLOA".

6.- Ilegalki egindako azken ple-noan Pertsonal Batzordetik bota gaituzue. Hori gutxi izanda, hortik aste batetara Euskara-Kultura eta Gazteria batzordea ospatze-tan gubizako 11tara pasa duzue, hemaren parte hartzea "errez-tea". Horrenbeste uzkaraitzen zai-tuztegu? Edo hemaren gehien-goak zuen proiektoei baiezkoa eman diolako (Maiatzak 13ko hauteskundeak arakatu bezala) zabiltzate hain urduri? Madrilen PPk bezala (RODILLOA aplikatuz) jokatzea da zuen helburua orain? Zergatik orduan hain jarre-ra arroa?

**Usurbilgo EAJ-PNV**

### Oharra

**Ika-mika atalerako testuak gehienera 2.000 karaktere izan behar ditu. Ekartze-ko azken eguna: otsailaren 1a.**

# Trafikoari dagokion lege berriak arau eta isun zorrotzak jasotzen ditu

**Martxan da trafikoa arautzen duen legedi berria. Aurrekoa, 1990ekoa d eta harrezkero asko aldatu dira gauzak. Legedi berria gutxi balitz, aurrerantzean N-1 eta A-8 errepideetan ipini dituzten arau bereziak ere kontuan hartu beharko ditugu. Indarrean diren neurri esanguratsu horiek guztiak ekarri nahi izan ditugu orriotara. Errepideak hizpide hartuta, N-634 bideko konponketa-lanak otsailaren amaieran bukatuko direla jakin dugu.**



Azpuruako konpainiako gidariek arretaz hartu dute lege berria.

Gida baimena behin betiko galtzeko arriskuak kezka sortu du gidarien artean. Labur esanda, azken bi urtetan hiru legehauste "oso larri" egiten dituenari gida baimena kenduko zaio. Hauek dira oso larritzat hartzen direnak: gehiegizko alkohol tasaz gidatzea edota drogak hartuta gidatzea, autoan jende gehiegi eramatea, istripu bat ikusi eta laguntza ez eskaintzea edota errepideetan auto lasterketak egitea.

Hori, legehauste bakoitzari dagokion isun ekonomikoa gehitu behar zaio. Beraz, autoa hartzen dugun bakoitzean adi ibili beharko dugu. Dena den, legeak gida baimena berreskuratzeko aukera ere eskaintzen du. Karneta berreskuratzeko, gidariak isuna ordaindu eta baimendutako gune batean berziklapen ikastaro bat egin beharko du.

Denak interes handiarekin hartu ditugu kontu hauek guztiak. Baina bereziki sektore



## Ezin da telefono mugikorra erabili

Lege berriaren arabera, gidatzerakoan ezin da eskuko telefonoz hitz egin. Aurikularrak jarrita eskuak libre izateko aukera ematen duten aparailuak ere debekatuta daude. Soilik aurikular gabeko sistemak onartzen ditu araudi berriak.

Telefonoak eragindako istripuak asko izan dira, horregatik da legea hain zorrotza.



## Gurasoak erantzule

Lege berriaren arabera, adin txikikoek egindako legehaustean ardura gurasoena izango da. Beraz, seme-alabek errepidean egindako akatsen kargu hartuko zaie gurasoei.

Dena den, lege-urratzea arina izan bada, ikastaroen moduko neurri hezitzaileen bitartez arindu daiteke ipinitako isuna.




## Isunetan beherapenak egon daitezke

Pozteko moduko neurririk ere onartu da. Izan ere, araudi berriaren arabera, isuna berehala ordaindu ezkero gidariak %30a aurreztu dezake.

Gida-baimena kendu zaion gidariari isuna ere jarrik zaio. Ikastaro hezitzaile batean parte hartzen badu, isunaren %30a aurrez dezake.

baten arreta bereganatu dute aipatu neurriek: garraiobideatena.

Edozein langilek gida-baimena kentzen badiote, lagunekin edota taxi batean joan daitekeelako lanera. Baina karneta galtzen duten gidari profesionalek langabezian geratzeko arriskua dute. Gidatzea baita euren eginbeharra.

## Arduratsu baina lasai daude Aizpurua konpainiako gidariak

Aizpurua autobus konpainiara jo dugu eta gezurra badirudi ere, gidariak lasai dira. Azken finean, bezero guztiak dira gidari hauen epaile. Presio horrek eraginda, aurretik ere arduratsu gidatu behar izan dutelako. Baina hainbat neurrirekin, isunekin batez ere, kezkatuta egoteko arrazoia ere badute: "isun gogor batek gure bizimoduan eragin dezakeelako", aitortu digu Ana Aizpurua gidariak. Bistan da, gida-baimena galtzeak lanbidea galtzea ere ekar dezake.

31 autobus eta 28 langile inguru ditu Aizpurua enpresak. Tartean dira, Fermin Apezetxea, Jose Mario Vizcaino eta Mikel Erro gidariak. Azken honen hitzetan, "abiadura 80ra jaistea ez dut uste oso aproposa denik". Abiadura azkarrean ibiltzen direnak asko izanda ere, orduko 100 km-ko muga jartzea nahikoa dela uste du Mikel Errok.

Dena den, autobusetan dabiltzan txoferrak abiadura mantsoan ibiltzea ohituta daude. Limitagailuak direla medio, orduko 100 km-ko abiaduratik gora gidatzea galarazita dute. N-1 eta A-8an, ordea, hauek ere 80ko abiaduran ibili beharko dute.

**Imanol Ubeda**

## N-634 bidea

Aurrera doaz N-634 errepideko konponketa lanak. Ekimen honekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak Oriarantz doan norabideko ubidea konpondu eta errepidearen zorua berritu nahi izan ditu.

Konponketa-lan hauek dena den, otsailaren amaieran bukatuko dira. Iñigo Zufiria Foru Aldundiako teknikariak argitu digunez, "auto asko dabiltza N-634 errepidean. Horregatik, lan horietako batzuk asteburuetan egin beharko ditugu". Zoruan aglomeratu kapa ipintzea falta da, esate baterako.

Beraz, konponketa-lanak gutxienik beste hilabetez iraungo dute oraindik.

# Neurri bereziak hartu dira N-1 errepidean

Erabilienak diren aldetik, N-1 eta A-8 errepideak dira istripu gehien izaten dituztenak. Pentsa, errepide hauetako leku jakin batzuetan 90.000 auto dira egunero igaro ohi direnak.

## Andoain eta Intxaurrondo bitarteko neurriak

Ezbeharren kopurua murriztu asmoz, bi dira dagoeneko indarrean diren arau berriak.

Batetik, abiadura murriztea. Andoaingo Bazkardotik Intxaurrondo bitartean, abiadura orduko 80km-ra mugatu da. Kamioi zein autoei eragiten die neurri honek. Adi ibili beharko dugu isunak ez baitira nola nahikoak. 120 km bitarteko abiaduran dabilenak 92 eta 301 euro bitarteko isunei aurre egin beharko die (15.000 eta 50.000 pezeta bitartean).

120 km-ko abiadura gainditzen duenari, berriz, isun ekonomikoa ezartzeaz gain gida baimena ere kenduko zaio. Gainera, karnetaren behin-behineko erretiratzea hiru hilabetekoa izan daiteke. Eta isuna 302 eta 602 euro bitartekoa izango da (50.000 eta 100.000 pezeta).

Beraz, auto gidariek arretaz jarraitu beharko dituzte abiadura seinaleak. Kamioiariek, ordea, beste neurri bat bete beharko dute derrigorrez: Andoaingo Bazkardotik (N-1) Intxaurrondora (A-8) bitartean aurreratzeko debekua.

15 kilometroko tarte horretan ugariak dira auto istripuak. Horietako asko kamioiek aurreratu asmoz eginiko maniobrek eragindakoak izan dira. Kamioiek eragindako istripuen ondorioz auto ilarak luzeak izatean dira; pisua dela medio kamioia errepidetik baztertzea lan zaila suertatzen baita. Arau hau betetzen ez duen kamioi gidariei isun eriori dakieke: 92-301 euro, abiaduraren arabera (15.000 eta 50.000 pezeta bitartean).



[illegible]

## Kontzeju txikia

# Etxe berriak egiten hasi dira Udaletxe ondoan

**Urtetan Alkartasuna Kooperatibaren egoitza izan zen sindikatua bota eta etxebizitzak eraikiko dituzte Elizalden. Nekazarien kooperatiba berria iaztik Ugarteko industrialdean kokatzen da. Etxebizitza berriek beteko dute Sindikatuak utzitako hutsunea. Plaza bat ere egingo da. Eta bide batez, Udaletxea herriaren gunean integratu nahi da.**



Orain arte irla moduko batean izan da Udaletxea. Beste herri batzuetan gune nagusia bada, Usurbilen koxkotik kanpo geratu da Udala, eliza eta frontoiaren atzean, aparte ia.

Sindikatuaren eraikina etxebizitza berriak egiteko bota da. Solairu hirutan bi bloke eraikiko dira, elkarren pribatukoak biak. Eta orain arte aparkaleku moduan erabilia izan den lur eremuan beste bi etxebizitza egingo dira. Hauek ere elkarren pribatukoak. Aparkaleku sabterraneoa ere egingo da. Etxebizitza hauek gainera guztiak plazatxo batekin lotuko dira. Torna senean, berriz, ekipamendu gehiago dihoaz Errekondo aldean: azaleko aparkaleku publiko bat.



Sindikatua nekazari kooperatibaren egoitza izan zen, urte askotan. Horren irudia [illegible] etxe aurrean [illegible] "Usurbil'ko [illegible]" [illegible] 1903 [illegible] 1908".

## ▶ Artzabalgo etxeen zozketa, otsailean

Dagoeneko martxan dira Artzabalgo etxebizitzen eraikitze-lanak. Hasiera batean 100 ziren eraiki beharrekoak baina eskaintza hain handia zen azkenean 171 izango direla altxako diren etxebizitzak.

Horietako 48 babes ofizialekoak izango dira. Dagoeneko ezagunak dira zozketan parte hartzeko eskubidea dutenen izenak. Udalak jakinarazi digunez babes ofizialeko etxe horien zozketa otsailaren erdialdean egingo da.

48 etxebizitza horiek 13 eta 16 milioi arteko prezioa izango dute.

## ▶ Jada izendatua izan da teknikaria berria

Urtarrilaren 16an egindako Gobernu Batzordean **Maria Teresa Iribar Argote** Kultur eta Euskara teknikari lanpostuirako izendatua izan zen.

Hainbeste zeresan eman duen postu honen eskaintza publikoa 2001. urte hasieran egin zen. Aukeratzeko prozesuaren epeak orain amaitu berri dira. Lehen sei hilabeteetan praktiketako funtzionari moduan arituko da Maria Teresa Iribar.

SERIGRAFIA TANPOGRAFIA
IOSU
Ugaldea poligonoa 26 - 2°. Esk.
Usurbil - Gipuzkoa
37 19 54
INDVSTRI ETA IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA

TABERNA-JATETXEA
ANTXETA
EGUZKITZA, 4
20.170 USURBIL
TEL.: 943 37 03 44

MIKEL IZAGIRRE
ELEKTRIZITATEA
Goiz Argi etxea, 37
Kalezar
Tel.: 943 36 50 95

# Porrusalda

## Ikastolan ere entzun ziren danbor hotsak

San Sebastian eguna ez da soilik Azpeitian edota Donostian ospatzen. Dagoeneko ohituran bilakatu da Udarregi Ikastolako ikasleen danborrada. Ekimen honi esker, San Sebastian eguneko danbor hotsak entzuteko aukera izan ohi dugu.

Ospakizunak, ordea, urtarrilaren 18ra aurreratu zituzten. 16:00etan hasita, haur hezkuntzako ikasleek saio ederra egin zuten Agerialdeko frontoian. Danborra jotzen ere txikitatik moldatzen direla argi geratu zen. Zuzeneko saioan ohiko piezak entzun ahal izan ziren.



## Atxikimendu asko jaso ditu Mertxe Aizpuruak

Atxekimendu asko bildu ditu egun hauetan Mertxe Aizpuruak, Gara egunkariko zuzendariak.

Martxelo Otamendi Euskaldunon Egunkariako zuzendariarekin batera, Espainiako Auzitegi Nazionalean inputatu gisa deklaratu behar izan zuen ETAri eginiko elkarrizketa batengatik.

Urtarrilaren 18an izan ziren epailearen aurrean. Egun horretan bertan, deklarazioaren ordu berean, Gara eta Egunkariako langileak elkarretaratzeak antolatu zituzten egoera salatu eta bi zuzendariei elkartasuna adierazi asmoz. Euskalgintzan lanean ari diren



erakunde eta lagunak ere agerraldi batean bildu ziren egoera salatu eta bi hedabideak babestu asmoz.

Ekainean lekuko gisa deituak izan ziren baina orain Auzitegiko Lehenengo Atalak eginiko apelazioak deituta, inputatu gis deklaratu behar izan dute.

## ▶ KIROLA

Usurbilek protagonismo berezia izango du Euskal Bizikleta 2002 txirrindulari lasterketan. Udalak lortu duen akordioari esker, txirrindularitza profesionalean ospe handia duen itzuli hau Usurbildik igaroko da datorren ekainean.

Akordio honen arabera, ekainaren 5eko etaparen helmuga Zumartegin kokatuko da. Atxega Jauregitik gertu. Hurrengo eguneko etapa ere bertatik abiatuko da. Hilaren 26an, eguerdiko 11:30etan, sinatuko da Usurbilgo Udala eta Euskal Bizikleta itzuliko antolatzaileen arteko akordioa Udaletxean egingo den ekitaldian.

## ▶ OSASUNA

Odol Emaileen Elkarteak urte osoko egutegia osatu du. Urtarrilaren 21ean egin zen urteko lehen odol-ateratzea.

Patxi Arruti, Usurbilgo Elkarteko kideak azaldu digunez, jendeak oso ondo erantzuten du Usurbilen eta 2001 urteko balantzea positiboa izan dela aitortu digu.

Hurrengo odol-ateratzea martxoaren 4an egingo da, Osasun Zentroan.

## ▶ GIZARTEA

Pasa den urtarrilaren 22an Elkarrik giza mugimenduak hitzaldi bat eskaini zuen Udaletxeko areto nagusian.

Bake Konferentzia izan zen hitzaldiaren gai nagusia. Hitzaldian bildu zirenei konferentzia zertan den eta nola garatzen ari den azaldu zitzaien.

# Txotx denboraldiaren hasieran, sagardotegien sukalderaino sartu gara

Hasi da txotx denboraldia. Askok San Sebastian eguna hartzen dute erreferentzia moduan baina gure sagardotegien artean badira Eguberrietatik lanean direnak.

Ekoizleen sagardo berria dastatzeko unea da. Beraz, lau hilabetez sagardoa izango da afari eta bazkari askotako protagonista nagusia.

Baina edalontzikoa bezain garrantzitsua da platerekoa. Sagardoa bezain erakargarria baita denboraldian eskaintzen den ohiko menua: tortila, bakailaoa eta txuleta. Dena den, hainbat lekutan urte osoan dasta daiteko sagardotegiko menua.

Honakoan, sukaldeetan erreparatu dugu. Txotx denboraldia hasi berri da eta gu kupelak baztertu gabe sagardotegien sukalderaino sartu gara.

## SAIZAR, Kalezar

Olibi Ibargurenek urteak egin ditu Saizar Sagardotegiko sukaldean lanean. Txotx denboraldian eta urte osoan jatetxea bere arduropean dago. Hain plater goxoak egiteko sekretuaz galdegin diogunean funtsezkoena produktuen kalitatea dela aitortu digu. Pimerako lehengaiekin lan egitea ezinbestekoa dela azaldu digu Olibik. Tortila on bat egiteko, bakailao plater bat osatzeko edota txuleta ogoki bat egiteko lehenik eta behin osagai onak behar direla.

**Jende kopurua:** 600 lagun.
**Ekoizpena:** 1.200.000 litro





## AIALDE BERRI, Santuenea

Salome Portu eta Mathiel Zubimendi dira sukaldeko lanetaz arduratzen direnak.

Hasiera batean lagunentzat eta etxekoentzat egiten zuten sagardoa. Duela gutxi sagardotegia zabaldu zuten arte; orduan hasi zen sukalde-lanean Salome.

Tortilak nola prestatzen dituen galdegin diogunean honako azalpena eman digu: tipula, piperra eta piper-minarekin peratzen ditu denbora batez. Azken urtean arrautzak gehitu eta tortila edertu izango dugu.

**Jende kopurua:** 110 lagun.
**Ekoizpena:** 25.000 litro.

## URDAIRA, Aginaga

Urdaira sagardotegiak urteak ditu. 19?? urtean zen hasiera txotx denboraldian.

Urdairan komedore-lana bakarrik txotx denboraldian egiten da. Markel Irazusta da sukaldeko arduraduna. Zerbitzua ondo nahian ostiralerako dena prest uzteko ohitura izaten du.

Ohiko menua da eskaintzen dutena. Baina bakailaoa saltsan eskatzen duenik ere bada. Aldez aurretik eskatu ezkero, Urdairan pil-pilean ere jan daiteke bakailaoa.

**Jende kopurua:** 100 lagun inguru.
**Ekoizpena:**



Iturgintza - Gasa - Berokuntza
J. Orbegozo
Bizkarra 1. Lesk.
☎ 37 29 37 - 36 59 26

TXURRUT TABERNA
Giro eta musika atseginal
San Esteban kalea, 1
Tel:943 36 00 80

## IRUIN, Zubieta

Eguberriak amaitu eta berehala hasi zen txotx denboraldia Iruin Sagardotegian. Dena den, sagardotegi menua zein karta urte osoan eskaintzen dute.

Sagardotegikoa prestatzeak ez du sekretu handirik. Dena momentuan egin beharrekoa baita. Hala ere, lan gehiago eskatzen dutenak tortila eta bakailaoa dira. Eskaintza guztien artean, txuleta dela gustukoena aitortu digu Arrate Azpirozek. Bakailaoa frijitua da gehien eskatzen dena, baina pil-pilean ere eskaintzen da. Hori bai, azken hau enkarguz ematen dute.

**Jende kopurua:** 200 lagun.
**Ekoizpena:** 180.000 litro.





## ARAETA, Zubieta

Denboraldia Gabonen bueltan hasi zen. Dena den, ofizialki San Sebastian egunaren ostean zabaldu zela esan daiteke.

Araetak 10 urte beteko ditu Otsailaren 16an. Iñaki Zumelaga gerenteak uste du aurtengoa dela orain arte egin duten sagardorik onena.

Haragi on bat eskaintzeko aholku batzuk eman dizkigu: txuleta denboraz atera behar da hozkailutik. Pantla tenperatura egokian dagoenean jarri behar da haragia sutan. Ahalik eta gutxien ikutu behar dela eta sutan suabe-suabe egitea ere aholkatu digu Iñaki Zumelagak.

**Jende kopurua:** 120 lagun.
**Ekoizpena:** 18.000 litro.

## AGINAGA, Aginaga

Abendutik hasi eta urte osoan zabalik izaten da Aginaga sagardotegia. Karta ere urte osoan eskaintzen dute.

Azken urteotako ohiturari jarraituz, Eguberrietan hasi zen txotx denboraldia Aginaga Sagardotegian. Aurtengoa harrigarriena izango da.

Beste batzuekin batera, sukaldean aritzen da lanean Mikel Errasti gaztea. Bere ustetan, bakailaoa zein txuleta dira jendearentzat gustukoenak. Aurten inoiz baino sagardo gehiago egin dutenez, lehen ez bezala aurrerantzean botiletan jasoko dute garantitzeko sagardoa.

**Jende kopurua:** 320 lagun.
**Ekoizpena:** 90.000 litro.





## ILLUNBE, Txokoalde

1983an hasi ziren sagardoarekin lanean. Illunbe urte osoan irekita egoten bada ere, sagardotegiko menua soilik txotx denboraldian eskaintzen da. Otsailaren hasieran hasiko dira sagardotegi gisa lanean.

Txuleta ondo egiteko su fuertea behar duela esan digu Joxe Angelek. Bere ustetan, txuleta bezain erakargarria da bakailaoa. Hori bai, kasu guztietan lehengaiaren kalitatea oso garrantzitsua dela adierazi digu. Zentzu horretan, tortilak egiterakoan ahal den guztietan baserriko arrautzak erabiltzeko ohitura dute.

**Jende kopurua:** 100 lagun inguru.
**Ekoizpena:** 100.000 litro.

...egia
Lentzeria,
...anezkoentzat arropa
haurren jantziak,
...erako behar dituzun...
Aritzeta I...
20170 Usurb... ☎ 943 36 17 87

LATAILLADE
ITURGINTZA GAS ETA BEROGINTZA
INSTALAKUNTZAK
ARIZTIENEO KALEA, 3 BEHERA
20170 USURBIL
TLF.: 943 36 26 35 - 36 33 48
Mobila: 609 888021

ARRAINDEGIA
PELLO
Aritzeta Kalea 1
Tf 36 21 64
USURBIL

Elkarrizketa

# Marcelo Diaz argentinarra: "Lana lortu dut eta orain nire familia ekarri nahi dut"

**Krisi larriak eraginda asko dira Argentinatik irten eta lan bila Europara etorri direnak. Horien artean da gure gonbidatua, Marcelo Diaz argentinarra. Honen emaztea Azkonabieta sendiko laugarren belaunaldikoa da. Usurbilen senideak dituzte eta aukera hori baliatuz hona etorri zen urte hasieran. Noaua!ko egoitzara Mari Karmen Mitxelenarekin batera hurbildu zen Marcelo Diaz Argentinarra.**

**Lana lortu du baina burokrazia kontuengatik Argentinara itzuli behar izan du lan-baimena bila.**



Burokrazia kontuengatik Argentinara itzuli da baina azkar eta azkarren itzuli nahi du

**Nola joan zaizu lan bilaketa?**

Lanarena ondo, paper kontuak ordea ez. Laster Argentinara bueltatu behar dut. Lan baimena nik neuk hartu behar dut Enbajadan bertan. Tramitea edozeinek egin dezake baina jaso nik bakarrik jaso dezaket. Hemen lan eskaintza egin didate eta agiri horrekin Argentinako espainiar enbajadara joan behar dut lan bisadoa eskuratzera.

Laupabost hilabete itxaron beharko dut baimena jaso arte. Ilarak luzeak baitaude enbajadetan. Baina hemen lan kontratua dudanez, baimen hori eskuratzea errazagoa izango dela esan didate.

**Hona etortzeko asmoa aspaldikoa al da ala egoerak eraginda etorri zara?**

Hona etortzeko asmoa aspaldikoa da baina gertatu den guztiaren aurrean hona etortzeko erabakia hartu nuen.

**Lana non lortu duzu?**

Urnietako Aiki Haizea enpresan, mekanika makinen mantenuan.

**Lanean hasi baina berriro Argentinara itzuli beharrean zaude. Lantegian nola hartu dute hara itzuli behar izatea?**

Ondo. Arazorik ez dagoela eta bueltan lekurik izango dudala agindu didate. Zentzu horretan, jabea oso ondo portatu da nirekin.

**Krisiari helduz, nola iritsi da Argentina egoera honetara?**

Orain lanttu bada ere arazoa aspalditik dator. Indarrean izan diren agintariek dena zurittu dute. Egoera jasanezina zen eta jendea kalera atera da.

**Korrupzioak eragin duela krisia, alegia.**

Bai, hortik etorri da. Pesoa eta dolarraren paritatea mantentzeak ere krisi ekonomikoa ekarri du.

**Eduardo Duhalde presidentea egoera konpontzeko gai izango dela uste al duzu?**

Bi bandotan daude politikariak, erradikalak eta errepublikanoak. Ez badu lortzen oposizioaren babesa, arazoak luzera egingo du.

Langileak dira okerren daudenak. Lanik ez dago eta lanera joaten denak ez daki kobratuko duen ala ez... Ni atera nintzenean, debaluazioa eman baino bi egun lehenago, dolarraren parean zegoen pesoa. Orain dolarrarekiko %40an jeitsi da pesoaren balioa.

**Aldi baterako asmoarekin etorri zara ala hemen finkatzeko asmoa duzu.**

Ahal badut behin betiko finkatu nahi dut hemen. Lan kontratua izanda emaztearekin eta bi alabekin etortzeko aukera izan beharko nuke.

**Zer iruditu zaizu hemen topatu duzuna?**

Gustukoa dut herria eta bertako jendea. Hemen mugimendu handia dago bertan, jendea asko ateratzen da kalera. Hemen topatu dudana ez da han telebistan ikustera ohituta gauden modukoa.

**Imanol Ubeda**

# Tomas Lasarte: "Profesionaletan pilota epaileok presio handiagoa izan ohi dugu"

**Txikitatik datorkio pilotarako afizioa Tomas Lasarteri. Pilotari moduan ere 10 bat urtez aritu zen, dena den, bere lana nabarmenagoa izan da epaile lanetan. Urtetan herriko partidetan epaile lanetan aritua, iaz profesionaletarako pausoa eman zuen. Hala ere, herri mailan lanean jarraitzeko asmoa du.**

**Dena den, kategoriaz igo ahala, presioa eta ardura handiagoa dela aitortu digu: "festibaletan diru asko jokatzen duen jendea dago-eta".**



*Duela bi urte lizentzia atera zuenetik norgehiagoka askotan aritu da epaile lanetan.*

**Noiztik zabiltza epaile lanetan?**

Lizentzia duela bi urte atera nuen. Aurretik, umeekin herriko txapelketetan ibilia naiz Pako Alkorta eta Enrike Huizirekin batera.

Lizentzia ateratzeko ikastaroa zegoela enteratu nintzenean izena eman nuen. Orain lizentziarik gabe ezin zara epaile izan.

**Zaila egin al zaizu profesionalen kategoriara iristea?**

Prest egon behar duzu, ez bazara ibiltzen ez zara gora iritsiko. Inportanteena ibiltzea da, esperientzia hartzea. Federaziokoek nahi dutena hori da, lizentzia atera eta epaile moduan ibiltzea. Ez baita profesionalen mundua bakarrik, gazteen partida pila dago.

Herri mailan ere jarraitzen dut. Gogoz sartu nintzen eta deitzen didaten bakoitzean hara edo hona ibiltzen naiz.

**Zure lanbidea beste bat izanik, afizio handia behar da.**

Dirua ez duzu irabazten. Zerbait pagatzen digute baina ezin zara horretara dedikatu. Astero bi edo hiru festibal egin beharko nituzke eta hala ere ez nuke asko irabaziko. Udan akaso. Baina afiziogatik gaude hemen. Gustura gabiltza.

**Profesionaletan presioa handiagoa da. Zuk hori nabaritzen al duzu?**

Ni berri samarra naiz. Duela gutxi hasi naiz profesionaletan eta dexente egin ditut baina ez zara ohitzen. Presio handiena dirua da. Atzean diru asko jokatzen da. Epaile bezala zaudenean korredore guztiak ondoan dauzkazu eta dena entzuten duzu. Hori presio handia da. Denborarekin ohituko gara, bien bitartean urduri egongo gara.

**Telebistarekin akatsak nabariagoak izaten dira.**

Noski, kantxan ikusten duzuna behin ikusten duzu. Telebistan, ordea, askotan ikus daiteke jokaldi berbera. Horregatik urduriago egoten gara. Baina denborarekin ohituko gara horretara.

**Epaile moduan zein da zure ametsetako partida, finalen batean aritzea, akaso?**

Finalak denoi gustatzen zaizkigu. Baina igoal da. Hala ere, nire ametsa Retegiren partidu batean aritzea zen. Eta hori bete nuen Atano III pilotalekuan egin zitzaion omenaldian.

**Azken boladan, pilotari eta enpresarien artean ika-mika handia sortu da. Gatazka gaindituko al da?**

Ez dakit zer esan, gauza garbirik ez dago hor. Enpresariek zeozer egin nahi dute eta pilotariek euren eskubideak eskatzen dituzte. Elkarrekin bildu eta hitz egiten hasten badira konponduko da.

**Amaitzeko, egia da gero eta ume gutxiago aritzen direla?**

Garai batean jende gehiago ibiltzen zen. Gehienak frontoira joaten ginen. Duela hiru urte asko galdu zen, ostera, orain ematen du berritzen ari dela. Telebistak indar handia eman dio. Horrek asko laguntzen du; lehen, garai batean, askoz jende gehiago ibiltzen zen eta afizioa askoz handiagoa zen.

**Imanol Ubeda**

Markesaneko petriletik

# Haur Eskolako matrikulazio kanpaina laster hasiko da

**Usurbilgo Haur Eskola 0-3 urte bitarteko haurrei zuzendurik dago, beraz, Haur Hezkuntzako lehen zikloaren barnean kokatu behar da. Iraila hasieran zabaldu zituen ateak eta gauzak nola doazten jakin nahian hurbildu gara bertara. Gustura daude orain arte egindakoarekin eta dagoeneko abiarazi dute 2002/2003ko ikasturtearen matrikulazio kanpaina.**

Umeak era egokian hazteko egoitza egokia da Haur Eskola. Irailan inauguratu zen, beraz, berri-berriak dira instalakuntza guztiak.

Aurtengoa lehen ikasturtea bada ere, zerbitzu honen alde duela bi urte hasi ziren bertako langile edota irakasleak. Tartean da Maider Oliokiegi gaztea: Bere ustetan, Usurbilgo herritarren beharrei erantzun die Haur Eskolak: "Usurbilek bazuen zerbitzu hori 2-6 urte bitartekoentzat baina 0-2koen umeentzat ez zegoen zerbitzurik", azaldu digu.

Bidezkoa izateaz gain, beharrezkoa ere bazen haur eskola. Izan ere, Udalak zerbitzu hau martxan jarri baino lehen egoeraren azterketa bat egin zen eta galdeketetan guraso asko izan ziren zerbitzu honen alde azaldu zirenak.

Orain arte senideen esku edota zaintzaileen esku uzteko aukera baino ez zen, Hori edota Añorga edo Zarautzera joatea. Orain, ordea, ez da zertan kanpora haurra herritik kanpora eraman behar.



## Bestelako zerbitzuak

Haurtzaindegia eta haur eskola argi bereiztu nahi ditu Maiderrek: "haurtzaindegiek funtzio asistentziala ematen dute. Guk hori eskaintzeaz gain beste helburu pedagogiko batzuk ere betetzen ditugu". Heziketa ikuspegitik, partehartzea, esperimentazioa edota sozializazioa dira kontuan hartzen diren irizpideak.

Osagarriak diren bestelako zerbitzuak ere eskaintzen ditu, Jantokia, esate baterako. Osasun heziketari ere garrantzia berezia ematen diote Haur Eskolako irakasleek.

### LEHEN IKASLEAK

**0-1 URTEKOEN GELA**

Aitor San Sebastian Garcia
Malen Portu Urdanpilleta
Jone Aizuntzin Alegria
Eider Aruaga Urkia
Aimar Albiztur Irastorza
Peru Aranburu Leiva

**1-2 URTEKOEN GELA**

Jon Galarai Lizarraga
Jon Ibargoien Alvarez
Jon Sierra Fernandez
Xabat Iturrioz Uribe
Mikel Martin
Oraitz Bruño Zinkunegi
Eneko Iribar Zumeta
Itsaso Sanchez Encinas
Olatz Altur Maiz
Mirene Telleria

ESTETIKA ZENTROA
LOURDES LARRAÑAGA
- Depilazioak
- Aurpegiko tratamendua
- Manikura
- Betileen permanentea eta tintea
- Azaleko garbitasuna
- Makilajea
- Masajeak
- Solariuma
Irazu kalea, 12-behea
Telf: 943 36 28 87

gorriti
EDARITEGIA
kafe berezia
San Esteban kalea, 8
TLF 36 27 70
20170
USURBIL

# Lehiaketa



## Hauetako zortziren izenak asmatuko al zenituzke?

Asmatzaileen artean 12 CDz osaturiko "Munduko musika" bilduma zozketatuko dugu

### 127. aleko erantzuna



Aurreko aleko lehiaketako argazkian azaltzen zen irudia Bizkarre baserria da. Kalexarren dago.

**Irabazlea**

Ez du inork asmatu.

**Saria**

Elizako Organoko CDa eta Noaualko kamixeta

MAHUKA
BEHERAPENAK
Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko du
Etxebeste kalea, 3- tlf. 943 36 11 06

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

Kale Nagusia, 9 USURBIL
Tlf.: 943 37 33 48
943 37 09 13
LABE-GOXO

Urtinea
Loreak - Lore landareak
Lore sortak - Koroak
San Esteban
Tlf.: 943 36 22 55

PATRI
JATETXEA
Eguneko bazkariak
eta afariak

# Agenda

## URTARRILAK 25 ostirala

- Euskal presoen aldeko enkartelada. Eberatt erakundeak antolatuta. 20.00etan Frontoiaren atzean.

## URTARRILAK 28 astelehena

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

## URTARRILAK 30 asteazkena

- Batasunaren herriko batzarra, Aitzagan, arratsaldeko 19.30etan. Gai-zerrenda: 1) Herriko mahaiaren hautaketa. 2) Batasunkideen zerrenda.

## URTARRILAK 31 asteazkena

- Usurbigo Jai Batzordeko bilera. Arratsaldeko 20.00etan plano arotaan.

## OTSAILAK 4 astelehena

- Euskal presoak Euskal Herriratzeko eskatuz enkartelada arratsaldeko 20.00etan.

## OHARRAK

- Munagurian garaje bateko marra salgai. Telf. 943 362424.
- Yamaha XJ 600 motoa daukat salgai. 225.000 pezeta. Telf. 943 366222.
- Usurbilen pisu bat osatzeko jende bila nabil. Deitu 943 793147 edo 617788538 telefonoetara.
- Neoprenozko traje bat dut salgai. Rip Curl marka eta L talla. Prezio interesgarria. Telf. 653728059.
- Udarregi ikastolan eskola kiroleko monitoreak behar dira. Deitu 943361216 edo 943370645 telefonoetara.
- Pisukide baten bila gabiltza Lasarten pisua osatzeko. Interesatuak deitu 699 876 702 telefonora.
- Trialeko motoa salgai. Montesa Cota 335. 150.000 pezeta. Interesatuak gauean deitu 943 370767 telefonora.
- Neska bat eskaintzen da arratsaldetan ordu pare batez haurrak zaintzeko. Interesatuak deitu 943 366485 telefonora.
- Garaje itxia salgai Etxealdean. Interesatuak deitu 943 373186 telefonora.
- Alokairuan dagoen pisua edo apartamendua hartuko nuke. Telf. 943 364469.
- Eoeein ohetarako balio duen ergibil gabe dagoen trapezo bat salgai. Deitu 943 835441 telefonora (Begoña).
- Pisu bat dut salgai. Deitu 13.00etatik 15.00etara edo 20.00etatik aurrera 943 372986 telefonora (Mª Angeles).
- "Dia" supermerkatuaren ondoan dagoen garaje itxi bat dut salgai gaitzardgainan. Interesatuak deitu 943 372831 telefonora.
- Emakume bat eskaintzen da astean hiru egunetan, goizez lau edo bost orduz lan egiteko. Interesatuak deitu 943 36 43 10.
- Portxona bat hartuko nuke arropak garbitzeko apopilo bezala. Gela indibiduala. Interesatuak deitu 943 36 57 37 telefonora.
- Abenduaren 2an, igande goiza, jertsea galdu nuen (urdina marra zuriekin). Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez 943 37 19 75 telefonora. Gauez deitu.
- Emakume bat eskaintzen da, goizeko 9.00etatik eta 14.00etara ostalaritza edo etxeko lanetarako. Esperientzia da garatu segurantza. Interesatuak deitu 943 36 43 40 telefonora.

## KIROL DEIAK

### FUTBOLA

**Emakumezkoak**

x Otsailak 3, igandea
**Usurbil FT**-Amara Berri. Haranen.

**Jubenilak**

x Urtarrilak 27, igandea
**Usurbil FT**-Lazkao. Haranen.

**Infantilak**

x Urtarrilak 26, larunbata
**Udarregi**-La Salle. Haranen.

### ESKUBALOIA

**2. Maila Nazioala (G)**

x Otsailak 3, igandea
**Usurbil KE**-Ereintza. Oiardo Kiroldegian.

**2. Maila Nazioala (E)**

x Urtarrilak 27, igandea
**Usurbil KE**-Muskiz. Oiardo Kiroldegian.

**Jubenilak**

x Otsailak 3, igandea
**Usurbil KE**-Eigoibarko. Oiardo Kiroldegian.

**Herriko haur eskolari izena ezin jarrita dabiltza oraindik. Proposamenen bat egin nahi baduzue deitu 943 37 40 61 telefonora edo bidali bertako buzoira.**

Ford
Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu ofiziala
Zumartegi Poligonoa
Aitzezarra kalea, 1
20170 USURBIL
Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92


TXIRIBOGA
TABERNA
pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak
Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

**Etxeko berri**

# TAPAK URTEZ URTE




## Koadernatu 2001eko Noaua! guztiak




104- 126 ZENBAKIAK

### Zein dira eman beharreko pausoak?

✎ Hartu 2001. urteko Noaua! hamaboskariaren ale guztiak (104-126) eta aurkibidea eta joan zaitez Noaua! Kultur Elkartearen egoitzara, Laurokera edota Lizardi liburudendara. Hor izango duzu 2001. urteko liburukiari dagokion azala. Ondoren bi liburudenda horietako batean koadernatzeko esan.

✎ Noaua! Kultur Elkarteko bazkide zaretenok azala doan izango duzue. Bazkide ez zaretenok, berriz, azalarengatik 500 pezeta ordaindu beharko duzue. Koadernatzea, bazkide eta bazkide ez zaretenok berdin ordaindu behar duzue.

✎ Aleren bat falta bazaizue ez izan gure egoitzan eskatzeko inongo lotsarik, liburukia osatzeko ale guztiak eskura izango dituzue eta; Bazkideok doan, eta besteok ale bakoitza 200 pezeta ordainduz.

# Egin txotx! Herriko-tolare Sagardotegietan!










